Online galdetegi batean oinarritutako jardunbide egokiak identifikatzeko metodologia bat diseinatzea eta ezartzea, adineko pertsonentzako etxeko eta egoitzetako zaintza-eredu berri bat garatzen laguntzen duten jardunbide egokiak dokumentatzeko.

2. helburu espezifikoa.

Mugaz gaindiko eragileentzat (administrazioak, hirugarren sektorea, unibertsitateak eta enpresak) esku-ragarri egongo den jardunbide egokien multzo bat eratzea, elkarrekiko ikaskuntza eta esperientziak partekatzea errazteko.

3. helburu espezifikoa.

NEXT-CARE sarearen oinarri metodologikoa definitzea, sare hori Euro-Eskualdeko erakundearen arteko interakziorako, ikaskuntzarako eta ezagutzak partekatzeko gune gisa ulertuta.

4. helburu espezifikoa.

Mapaketaren emaitza nagusiekin laburpen-txosten bat egitea, orientazio erabilgarriekin, aldaketa bideratzeko pertsona ardatz duten arreta- eta zaintza-eredu berrietara.

2.3. Mapaketaren metodologia

Jardunbide egokien mapaketa ikuspegi sistemati-ko eta parte-hartzaile bat jarraituz egin zen. Lana norberak betetzeko inkesta digital baten bidez egin zen, eta udalei, hirugarren sektoreko erakunde-
deei, unibertsitateei eta enpresei zuzenduta ze-
goen. Tresna honi esker, esperientzia bakoitzaren helburuei, jardueriei, emaitzei eta ikaskuntzei bu-
ruzko informazio konparagarria bildu ahal izan zen, NEXT-CARE eskualdeetan dagoen bizi-luzetasune-
ko berrikuntza-ekosistemaren ikuspegi zabala eta zorrotza eskainiz.

Metodologia zazpi etapa nagusitan egituratu zen:

1. Iturriak identifikatzea.

Bizi-luzetasunarekin eta zainketekin – etxean eta egoitza-zentroetan – lotutako erakundeen, udal-errien eta proiektuen aurretiazko zerrenda bat egin zen, administrazio publikoak, hirugarren sektoreko erakundeak, unibertsitateak eta enpresak barne hartuta.

2. Galdetegia diseinatzea eta baliozkotzea.

Norberak betetzeko inkesta digital bat sortu zen, 15-20 minutukoa, jardunbide bakoitzaren helburuei, jarduerai, emaitzei eta ikaskuntzei buruzko informazioa jasotzeko.

3. Informazioa banatzea eta biltzea.

Galdetegia ABEN Euro-Eskualdeko 85 erakunderi bidali zitzaion, 2021eko urriaren 18tik abenduaren 2ra bitartean. 52 erantzun onargarri jaso ziren (partaidetza-tasaren %61).

4. Prozesamendua eta sistematizazioa.

Jardunbideen sailkapena, hainbat irizpideren arabera egin zen: tipologia —gizarte-berrikuntza, berrikuntza teknologikoa, instituzionala edo prestakuntzakoa—, xede-populazioa, eragin-esparrua eta zainketak aldatzeko ereduari egindako ekarpena.

5. Klusterrak taldekatzea.


Aldaketara bideratutako jardunbide egokiak helburuen, xede-populazioaren, erabilitako teknologien edo eragin-esparruen (etxeak, egoitzak, komunitateak, etab.) arabera multzokatu ziren.

6. Baliozkotzea eta lurralde-berrikuntzako poloetan integratzea.

Kluster teorikoak hautatu eta baliozkotu ziren, esperientzia pilotuak diseinatzeko eta lurralde berrikuntzako poloetan integratzeko oinarri gisa erabiltzeko.

7. NEXT-CARE sarea ezagutzera ematea.

Emaitzak zabaldu ziren eta sarea ezagutzera eman zen, inplikaturako eragileek sinatutako atxikipen-gutun baten bidez. Ekintza hori lehenengo urratsa izan zen mugaz gaindiko eskualdeen artean ikaskuntza- eta ezagutzak partekatzeko gune bat finkatzeko.



1. irudia. Jardunbide egokien mapaketaren metodologia

2.4. Emaizak

Egindako mapaketak agerian uzten du eskualdeen artean desoreka dagoela erantzunetan. Identifikatutako ekimenen %86 (45 guztira) Euskadin biltzen dira: 31 Gipuzkoan, 6 Bizkaian eta 8 Araban. Nafarroan, berriz, 2 jardunbide egoki erregistratu dira, eta 5 Akitania Berrian. Emaiza horren arrazoia da, neurri handi batean, Euskadin hedapen handiagoa lortu dela erakundeei galdetegiarri erantzuteko gonbita egiteko.

Identifikatutako jardunbideek aniztasun handia erakusten dute, eta bost esparru nagusitan sailka daitezke.

Gizarte-berrikuntza (%77): komunitate-loturak indartzea eta zaintzaile formalei zein familiako senide diren zaintzaileei laguntzea du ardatz. Honako hauek barne hartzen ditu: etxean zaintzen duten familientzako prestakuntza eta laguntza psikosozialeko programak; adinekoei informazioa eta laguntza emateko ekimenak haien komunitateko partaidetza sustatzeko; nahi ez den bakardadeari aurre egiteko espazio irisgarriak sortzea, eta telefono bidezko doako laguntza-zerbitzuak.


Berrikuntza teknologikoa (%48): tresna digitalak eta teknologikoak erabiltzea bizi-kalitatea hobetzeko. Nabarmentzekoak dira tableten bidezko estimulazio kognitiboko esperientziak narriadura arina edo neur-

ritsua duten pertsonetan, egoitzetan errealtate birtuala aplikatzea ongizate emozionala eta kognitiboa bultzatzeko, etxean bizi diren adinekoen artean eten teknologikoa murrizten duten plataforma digitalak eta osasun-eskaerak telelaguntzaren bidez kudeatzeko sistema elkarreragingarriak.

Berrikuntza instituzionala (%44): zerbitzuak berrantolatze eta koordinatzeko neurriak. Adibide esanguratsuak dira kasuaren kudeatzailea udaleko gizarte-zerbitzuetan ezartzea, egoitzetako koordinazio soziosanitarioa eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuko profesionalen zuzendutako prestakuntza instituzionala, zerbitzuaren efizientzia eta kalitatea handitzeko.


Prestakuntza eta gaitzuntza (%46): profesionalen eta zaintzaile informalei zuzendutako programak. Barne hartzen ditu prestakuntza duala eta laguntza profesionalentzat, etxeko istripuak prebenitzeko hezikuntza eta adinekoen balorazio funtzionala, eta pertsona ardatz duen eta loturarik gabeko arreta-ereduan gaitzea ere.

Ikerketa (%44): sektorea eraldatzeko ezagutza ematen duten ekimenak, hala nola negozio-ereduei buruzko merkatu-azterketak, zerbitzuen kalitateari buruzko ikerketak eta zainketa- eta laguntza-ereduak ebaluatze proiektuak.




2. irudiak jardunbide egokien banaketa erakusten du, tipologiaren arabera

Eragin-esparruari dagokionez, ekimen gehienak (%83) etxean bizi diren pertsona hauskorrei edo mendeko pertsoneri zuzenduta daude, eta egoitza-zentroetan garatzen direnak jarraitzen die (%73). Modu osagarrian, %37k eguneko zentroetan jarduten du, eta %2k ostatu alternatiboetan.



3. irudia. Jardunbide egokien eragin-esparruak

Hartzaileei dagokienez, emaitzek erakusten dute jardunbideen %90 mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzenduta dagoela, eta %69, berriz, pertsona hauskorrei. Ia erdiek zaintzaileak behar dituzte –profesionalak, familiako senideak edo informalak– eta laurden bat baino ez dago adineko autonomoei zuzenduta, zahartze aktiboa eta osasungarria prebenitzeko eta sustatzeko programen bidez.



4. irudia. Identifikatutako jardunbideen xede-populazioa

2.5. Consideraciones finales

Mapaketari esker 52 esperientzia identifikatu eta dokumentatu ahal izan dira; esperientzia horiek arreta- eta zaintza-eredu gizatiarrago, pertsonalizatuago eta jasangarriago bat lortzen laguntzen dute. Funtsezkoa da pertsona ardatz duen ikuspegia aplikatzea, bai etxean, bai egoitza-zentroetan, mendekotasun- eta ahultasun-egoeran dauden pertsonen arreta berezia eskainiz. Aldi berean, pertsona autonomoen prebentziorako eta zahartze aktiborako ekimenak identifikatu dira, bai eta autonomia- eta zaintza-aukerak handitzen dituzten teknologia irisgarri eta erabilgarriak pixkanaka integratzeko ekimenak ere.

Egindako lanak mugaz gaindiko sareek esperientziak partekatze eta elkarrengandik ikasteko espazio gisa duten garrantzia berresten du. NEXT-CARE sarea sortzea eta sendotzea funtsezko urratsa izan da Euro-Eskualdeko eragileen arteko interakzioa errazteko eta ekimen aniztasuna, zainketen berrikuntzarako koordinatutako ekosistema bihurtzeko.

Norabide horretan aurrera egiteko, honako gomendio hauek proposatzen dira:

- Erakundeei laguntza gehiago ematea, jardunbide egokien dokumentazioa eskuragarri izateko eta NEXT-CARE sarean sartzeko.
- Sinergiak eta ikaskuntza kolektiboak bultzatuko dituzten gaikako eta lurraldeko klusterrak sortzea.
- Aldaketara bideratutako jardunbide egokiak partekatzea eta zabaltzea, tokiko testuinguru desberdinetara egokitutako esperientzia pilotuen bidez.
- Pertsona ardatz duen berrikuntza sustatzen jarraitzea, arreta berezia jarritz pertsonalizazioan, komunitatearen partaidetzan eta teknologia irisgarri eta erabilgarrien integrazioan.

Bizi-luzetasuna berritzeko jardunbide egokien multzoak xehetasunez jasotzen ditu identifikatutako ekimenak. Multzo horrek jardunbide bakoitzaren helburuei eta ezaugarriei buruzko informazioa ematen du, esperientzien ikuspegi sistematizatua eta alderatua eskainiz. Elkarren arteko ezagutzarako eta ikaskuntzarako funtsezko baliabidea da; izan ere, adibide zehatzak eta eremura egokitzen direnak partekatzen dira, eta horrek tokiko hainbat testuingurutan konponbide berriak ezartzen lagundu dezake. (Ikus II. ERANSKINA)

Kapitulua 3

Frogapen-kasuak: bizi-luzetasuneko berrikuntza

Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren frogapen-kasuak, benetako testuinguruetan ezarritako esku-hartze aitzindariak, emaitza —edo adierazgarri sendo— positiboak izan dituzte adinekoen bizi-kalitatean eta arreta-sistemen eraginkortasunean. Kasu horiek nabarmendu egiten dira bete gabeko beharrei erantzuteko duten gaitasunagatik edo lehendik zeuden jardunbideak nabarmen hobetzeagatik, pertsona ardatz duten eta komunitatearekin erabat lotuta dauden eredu integratuagoak proposatuz. Hautatutako esperientzia bakoitzak jasangarritasun teknikoa, antolakuntzakoa eta finantzarioa uztartzen ditu, eta beste lurralde batzuetan erabiltzeko eta hedatzeko ahalmen handia du. Gainera, kasu guztietan berrikuntzaren bat sartzen da —metodologikoa, teknologikoa, komunitarioa edo instituzionala—, eta horrek eredu bihurtzen ditu zahartzearen eta bizi-luzetasunaren eremuan sistema-aldaketak bultzatzeko.

Kapitulu honetan benetako bost kasu azaltzen dira, eta horien bidez erakusten da berrikuntza – soziala, teknologikoa eta antolakuntzakoa – iraupen luzeko zainketak eta etxeko arreta eraldatzen ari dela. Aztertutako ekimenak —ACERCAR, etxeTIC, Getxo Zurekin, Ogénie eta Zaindoo— Euskaditik, Nafarroatik eta Okzitaniatik datoz, eta, hainbat testuingurutatik,

modu eraginkorrek azaltzen dituzte zaintza-eredu integratuago, pertsonalizuago eta komunitarioago bat lortzeko.

3.1. Berrikuntza, zaintza-eredua aldatzeko baldintza gisa

Zainketa ereduak integralago eta hurbilago izatea eta pertsona bakoitzari egokituta egotea nahi bada, ez da nahikoa legeak aldatzea edo baliabideak berrantolatzea; era berean, beharrezkoa da gizarte-berrikuntzako prozesu iraunkorrak txertatzea. Gizarte-zerbitzuen esparruan, berrikuntzak esan nahi du produktu, prozesu, metodo eta/edo zerbitzu berri edo hobetuak sortzea, gai direnak egungo erronka soziodemografiko eta politikoei erantzuteko, jardunbideak, harremanak eta zerbitzu-politikak aldatuz eta pertsona zaurgarri, hauskor eta mendekoen bizitzan benetako inpaktua sortuz.

Aztertutako esperientziek erakusten dute berrikuntza modu askotara eman daitekeela: tresna teknologiko berriak garatuz, lehendik zeuden teknologiak sormenez erabiliz, komunitate-harrema-

nak sortuz, arreta-planak pertsonalizatuz, anto-
lamendua eraldatuz eta zerbitzuak diseinatzeko
metodologia parte-hartzaileak erabiliz. Kasu guz-
tietan, **erabiltzaileen esperientzia hobetu eta
profesionalen eta sistemen arteko koordinazioa
optimizatu nahi da**, etorkizunean gerta daitez-
keen arazoak prebenitzeko eta baliabideak modu
eraginkorragoan erabiltzeko.

Berrikuntza aldaketaren benetako eragilea izateko,
baldintza jakin batzuk bete behar dira: aurrez aurreko
arreta ardatz izaten jarraitzea, eten digitalari aurre egi-
tea, zerbitzuak pertsona eta lurralde bakoitzera ego-
kitzeko malgutasuna izatea, komunitatean konfiantza
sortzea, erakundeen babes egonkorra izatea, saiake-
ra- eta errore-prozesuetan dagoen arriskua onartzea,
eta emaitzek enpirikoki egiaztatzea.

Azken batean, berrikuntza ez da zainketa- eta la-
guntza-ereduaren osagarri bat, hura eraldatzeko bal-
dintza bat baizik. Hori gabe, aurrerapenak esperientzia
pilotuetara mugatuta geratzeko arriskua dute, fin-
katzeko edo hedatzeko gaitasunik gabe; berrikuntza-
rekin, berriz, aukera zabaltzen da pertsonen egunero-
ko bizitzan oinarritutako, prebentzioan oinarritutako
eta bidezkoagoa den sistema bat izateko.

3.2. Frogapen-kasuak: bizi-luzetasuneko berrikuntzak

Frogapen-kasuak arreta- eta zaintza-esperientzia
berritzaile gisa definitu dira; eta martxan diren bitar-
tean, aukera ematen dute aldaketa bizi-luzetasuneko
zaintza- eta laguntza-eredu berrietarantz bideratzeko.
Gizarte-, osasun-, eta komunitate-ikuspegiak uztartzen
dituzten jardunbideak dira, eta berritasuna, eraginkor-
tasuna, jasangarritasuna eta beste testuinguru batzue-
tan erabiltzeko aukera barne hartzen dituzte.

Hartutako ikuspegiak ekimenen deskribapenetatik
harago joatea du helburu. Ekimen horiek eraginkorrak
izateko behar diren faktoreak, sortzen dituzten ikas-
kuntzak eta arrakasta lortzen laguntzen duten bal-
dintzak aztertzen ditu. Proiektuek “zer egiten duten”
ez ezik, “nola” eta “zergatik” egiten duten ere identifi-
katu behar da, adinekoentzako arretan aldaketa gar-
rantzitsuak lortzeko. Kasuak hautatzeko alde zuzenak
adostu dira honako irizpide hauek:

- **Bete gabeko beharrei erantzuteko** edo lehendik
zeuden jardunbideak funtsean hobetzeko gaita-
suna izatea.
- **Eredu integratuago baterantz bideratuta ego-
tea**, pertsona ardatz duena eta komunitatearekin
lotuta dagoena.
- **Erabiltzaileen bizi-kalitatean eta sistemaren
efizientzian eragin positiboa** duten ebidentzia
edo zantzu sendoak izatea.
- Beste lurralde batzuetan **erabili eta hedatu
ahal izatea**.
- **Jasangarritasun** teknikoak, antolakuntzakoa eta
finantzarioa izatea.
- **Berrikuntza** metodologikoa, teknologikoa, komu-
nitarioa edo instituzionala izatea.

Bost kasuek lurralde, **ikuspegi eta esku-hartze es-
parruan aniztasun nabarmena erakusten dute**: lan-
da- eta hiri-eremuetako ekimenak, arreta-eredu hibri-
doak, proposamen teknologikoak, komunitateko- eta
hurbiltasun-proposamenak. Etxean, komunitatearen
parte-hartzean eta baliabide formal eta informalak
arteko loturan oinarritutako ekimenak biltzen dituzte.
Oro har, bizi-luzetasuneko berrikuntzaren “bizirik dau-
den laborategiak” dira, eta balio handiko ikaskuntzak
dira tokiko errealitatera eta adinekoen beharretara
egokitutako politikak eta zerbitzuak eskaintzeko.


3.3. Helburuak eta metodologia

Aztertutako frogapen-kasuek helburu komun bat
dute: **hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran
dauden adinekoen ongizatea eta horiek etxean
geratzea indartzea, eta, zaintzaileen lana babestea
eta aitortzea**. Helburu espezifikoak dagokienez, ho-
nako hauek izango lirateke: zaintzaileen gainkarga eta
amore emateko arriskua murriztea; nahi ez den insti-
tuzionalizazioa atzeratzea; bizi-kalitate objektiboa eta
hautemandako bizi-kalitatea hobetzea; eta gizarte-
eta teknologia-berrikuntzaren indarra aprobetxatzea
arreta pertsonalizatuagoa, prebentiboagoa eta komu-
nitarioagoa emateko.

Hori aztertzeko, **askotariko kasuak aztertzeko me-
todologia** kualitatiboa erabili zen, egokia baitzen tes-
tuinguruan kokatutako eta politika publikoak bide-
ratzeko gaitasuna duten esperientziak deskribatzeko
eta sakon aztertzeko.

Prozesua lau fasetan garatu zen:

1. **Inklusio- eta lehentasun-irizpideak definitu ziren:** aztergai-
ra egokitzea, komunitate-esparruarekiko lotura, gizarte berri-
kuntza/berrikuntza teknologikoa, inpaktuaren ebidentzia, indar-
raldia, hedadura eta irismena.
2. Jardunbide mota, eragile eta lurralde desberdinak dituzten **bost kasu adierazgarri hautatu ziren:**
 - **ACERCAR** (Nafarroa): arreta hibridoko zerbitzua landa-in-
guruneetan.
 - **etxeTIC** (Euskadi): etxean egoteko laguntza, arreta hibri-
doaren eta teknologiaren bidez.
 - **Getxo Zurekin – Komunitate errukitsua** (Euskadi): zainketa arin-
garriarako, bizitzaren amaierarako eta dolurako tokiko sarea.
 - **Ogénie** (Occitania): adinekoen gizarte-loturarako platafor-
ma digitala.
 - **Zaindoo** (Euskadi): zaintzaileentzako arreta telematikoa eta
laguntza psikosoziala.
3. **Informazioa bildu zen,** dokumentu-analisiaren eta ekimen ba-
koitzeko sustatzaileei egindako elkarrizketa erdiegituratuaren bidez.
4. Kasu bakoitzaren **deskribapena eta azterketa** sistematikoa
egin ziren —jatorria, helburuak, jarduketa-ildoak, garapena,
emaitzak, ikaskuntzak eta ikuspegiak—, joeren, bideratzaileen
eta erronka komunen zeharkako analisiarekin osatuta.



5. irudia. Kasuak aztertzeko metodologiaren faseak

3.4. Emaizak

Zainketen, laguntzen eta etxeko arretaren berrikuntza-ko bost kasuen azterketa konparatuak erakusten du **aurrerapen garrantzitsuak egin direla zerbitzuen kalitatean**, irisgarritasunean eta efizientzian, bai eta lehentasunezko ikuspegiaren integrazioan ere.

Gizarte-esparruan nabarmentzen diren esperientziak dira komunitatearen narratiba eta jardunbideak eraldatu dituztenak (Getxo Zurekin), zainzaileentza-ko laguntza indartu dutenak (Zaindoo - etxeTIC) eta landa-eremuetan existitzen ez ziren zerbitzuetarako sarbidea zabaltzen dutenak (ACERCAR).

Arlo **teknologikoan**, ekimen guztiek tresna digitalak dituzte – gizarte-konexioko plataformetarik (Ogénie) hasi eta monitorizazio- eta telerrehabilitazio-sistemetaraino (ACERCAR - etxeTIC) –, eta horri esker, baliabiak optimizatu, premiak goiz hautematea hobetu eta zerbitzu formalen erabilera murriztu ahal izan da.

Antolamendu-berrikuntzan, honako hauek ikusten dira: osasun-, gizarte- eta komunitate-sistemen arteko koordinazio-ereduak (Getxo Zurekin - ACERCAR), figura profesional berriak sortzea, kasuaren kudeatzailerak (etxeTIC - Getxo Zurekin) eta espazio instituzionalak komunitateari irekitzea (ACERCAR).

Emaizak kuantitatiboak hobekuntzak erakusten dituzte ongizate emozionalaren adierazleetan, gainkar-

garen murrizketan, zainzaileen autoeraginkortasuna handitzean eta zerbitzu formalen erabilera murriztearen bidez sistema publikoan aurrezpen esanguratsuak egitean.

Kasu guztietan, **erabiltzaileen eta familien gogobetetasuna** handia da, eta ezarritako irtenbideen kalitateari, egokitasunari eta erabilgarritasunari buruzko balorazio positiboak egin dira.

Desberdintasunak gorabehera, jardunbideek **erakunde arteko eta komunitatearen lankidetzaren partekatzen dute** zeharkako ardatz gisa. Landa-eremuko ikuspegia bereziki garrantzitsua da ACERCAR, Zaindoo eta etxeTICen; genero-ikuspegia esplizituki txertatzen da etxeTIC eta Zaindoo; eta belaunaldien arteko elkartasuna bereziki Getxo Zurekin eta Ogénie elkarteetan sustatzen da. Oro har, guztiek ikaskuntza baliotsuak eskaintzen dituzte politika publikoak diseinatzeko eta irtenbide berritzaileak zabaltzeko lurralde-testuinguru desberdinetara egokituta.

Jarraian, aztertutako kasu bakoitzaren gai nagusia, deskribapen laburra, berrikuntza-elementuak eta txertatutako lehentasunezko ikuspegiak laburbiltzen dituen taula konparatua aurkezten da. Egitura horri esker, azkar ikus daitezke jardunbideen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak, bai eta horietako bakoitzak aurrerapen handienak egin dituen esparruak ere. Konparatzeak, gainera, elkarrengandik ikas-teko eta lurraldeen arteko lankidetzarako elementu transferigarriak eta aukerak identifikatzea errazten du.

Adibidea	Gaia	Azalpena	Berrikuntza elementuak	Ikuspegiak Lehentasuna dutenak
ACERCAR Nafarroa https://acercar.es/	Arreta hibridoko zerbitzua landa-inguruneetan.	Aurrez aurreko eta urruneko arreta uztartzen dituen eredua (monitorizazioa, telelaguntza, fisioterapia, neuropsikologia), landa-eremuetan irisgarritasuna eta efizientzia hobetzeko.	Teknologiaren bidezko gizarte-berrikuntza; antolaketa-eredu hibridoa; osasun-sistemaren eta sistema soziosanitarioaren arteko koordinazioa; eta egoitzak komunitateari irekitzea.	Landa-eremua, lankidetzak.
etxeTIC Euskadi https://www.bizkaia.eus/es/etxetic	Etxean egoteko laguntza, arreta hibridoaren eta teknologiaren bidez.	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako etxeko arreta, teknologia eta koordinazio soziosanitarioa uztartzen ditu, eta zainzaileei laguntza ematen zaie.	Gizarte-, teknologia- eta antolaketa-berrikuntza; kasuaren kudeatzailerak; gizarte-, osasun- eta komunitate-zerbitzuak uztartzea.	Generoa, landa-eremua, lankidetzak, intersektionala, belaunaldi arteko elkartasuna, Euroeskualdekoa.
Getxo Zurekin – Comunidad Compasiva Euskadi https://fundaciondoblesonrisa.com/getxozurekin/wp-content/uploads/2020/09/Fundacion-DS-Getxo-Zurekin.pdf	Zainketa aringarrietarako, bizitzaren amaierarako eta dolurako tokiko sarea.	Zerbitzu formalak, komunitatea eta tokiko eragileak barne hartzen dituen komunitate-sarea, zainketa aringarriak, bizitzaren amaiera eta dolua hobetzeko, komunitatearen parte-hartzearen bidez.	Gizarte- eta antolaketa-berrikuntza; Lokarriaren figura eta komunitatea lotzeko taldea; batera sortzeko metodologiak eta komunitatearen partaidetza.	Lankidetzak, belaunaldien arteko elkartasuna, intersektionala.
Ogénie Okzitania https://ogenie.fr/	Adinekoen gizarte-harremanak sustatzeko plataforma digitala.	Nahi ez den bakardadea prebenitzeko jardueretan eta baliabideetan oinarritzen da, banakako aholkularitza-zerbitzuaren eta bilaketa-tresna irisgarriaren bidez.	Gizarte-, teknologia- eta antolaketa-berrikuntza; erakunde txikiak ikusaraztea; batzorde estrategikoak; boluntariotzaren atala.	Lankidetzak, belaunaldien arteko elkartasuna, landa-eremua.
Zaindoo Euskadi https://www.euskadi.eus/zaindoo/es/	Zainzaileentzako arreta telematikoa eta laguntza psikosoziala.	Zerbitzu digital honek laguntza psikosoziala eta antolaketa-tresnak eskaintzen dizkie zainzaileei, gainkarga murrizteko eta autoeraginkortasuna hobetzeko.	Gizarte- eta teknologia-berrikuntza; parte-hartzearen bidez sortutako berezko aplikazioa; zainketen arloko erantzukidetasuna sustatzea.	Generoa, landa-eremua, lankidetzak.

3.5. Azken gogoetak eta ikasitako ikasgaiak

Zainketen eta etxeko arretaren berrikuntzako bost kasuen azterketa bateratuak berresten du esperientzia horiei esker aurrerapen esanguratsuak sortzen ari direla zerbitzuen kalitatean, irisgarritasunean eta efizientzian, bai eta lehentasuna duten ikuspegiak txertatzean ere, hala nola erakundearteko eta komunitatearen lankidetzak, genero-ikuspegia, landa-inguruneetan arreta eskaintzea eta belaunaldien arteko elkartasuna. Berezitasunak alde batera utzita, horiek guztiek erakusten dute gizarte-, teknologia- eta antolaketa-berrikuntzak duen indarra, pertsonara eta haren ingurune hurbilera bideratuta dagoen zaintza-eredua aldatzeko eragile gisa. Oro har, **ekimenek honako hau erakutsi dute:**

- **Eragina ongizatean eta bizi-kalitatean:** ongizate emozionala hobetzea, zaintzaileen gainkarga murriztea, autoeraginkortasuna handitzea eta erabiltzaileen eta familien gogobetetze-maila altua.
- **Sistemaren efizientzia eta jasangarritasuna:** zerbitzu formalen erabilera murrizteak —telelaguntza, eguneko zentroak, egoitzak— Administrazio Publikoak aurrezteak eragiten du, eta nahi ez diren instituzionalizazioak atzeratzen laguntzen du.
- **Eraldaketa soziokulturala:** Getxo Zurekin eta Ogénie gisako esperientziek erakusten dute heriotzari, bakardadeari edo zaintza partekatuen balioari buruzko komunitatearen pertzepzioa alda daitekeela.
- **Teknologia egokituak erabiltzea:** esperientzia guztiek tresna digitalak dituzte – monitorizazioa, plataforma sozialak, telerrehabilitazioa –, eta onura argiak dituzte baliabideen jarraipenean, goiz hautematean eta optimizazioan, nahiz eta erronkak dauden eten digitaletan eta askotariko profiletarako egokitzapen teknologikoan.
- **Antolaketa-eredu berritzaileak:** erabakigarriak izan dira lotura-figura profesionalak sortzea, osasun- eta gizarte-sistemen arteko koordinazio eraginkorra, eta espazio instituzionalak komunitateari irekitzea.

Badira, halaber, faktore **bideratzaile komun batzuk:** bost kasuek partekatzen dituzten elementuak, baldintzak eta baliabideak, haien garapena, inpaktua eta jasangarritasuna erraztu dutenak, eta funtsezkoak direnak etorkizuneko zaintza-berrikuntzako esperientziek arrakasta izateko.

- **Borondate politikoa** eta konpromiso instituzionala hainbat mailatan.
- Komunitatearen eta erabiltzaileen **parte-hartze aktiboa** diseinuan eta baterako sorkuntzan.
- Sektore publikoaren, pribatuaren, hirugarren sektorearen eta komunitatearen arteko **lankidetzak**.
- Zerbitzua tokiko beharretara eta testuinguruetara egokitzeko **malgutasuna**.

Honako hauek dira bost kasuetan identifikatutako **oztopo, traba, erronka eta muga** nagusiak, haien garapena, ezarpena edo jasangarritasuna baldintzatu dutenak, eta etorkizuneko zainketen berrikuntzako ekimenetan erronka horiek prebenitzeko, txikiagotzeko edo kudeatzeko irakaspen erabilgarriak ematen dituztenak:

- Administrazio-denboraren eta -prozeduren eta berrikuntzaren dinamikaren arteko **desorekak**.
- **Eten digitala** eta oztopo kulturalak zerbitzu berriak txertatzeko, bereziki laguntza psikosozialerako.
- **Harreman gutxi** sistema formalaren esparru batzuekin, batez ere oinarrizko gizarte-zerbitzuekin.
- Esperientzia jakin batzuetan boluntariotzarekiko **gehiegizko mendekotasuna** izatea; horrek jasangarritasuna arriskuan jartzen du.

Azkenik, funtsezko zenbait **gomendio eta ikaskuntza** jasotzen dira, hala nola orientazio praktikoak, ondorio baliagarriak eta ezagutza transferigarriak, gida gisa erabil daitezkeenak zainketen berrikuntzan esperientzia berriak diseinatzeke, ezartzeko eta zabaltzeko:

- Administrazioen, zerbitzu formalen eta komunitatearen arteko **lankidetzak-esparru egonkorak finkatzea**, bultzada pertsona edo talde jakin batzuen mende egon ez dadin.
- **Jasangarritasun ekonomikoko planak diseinatzea** hasierako faseetatik, finantzaketa publiko egonkorra eta lankidetzak publiko-pribatu-soziala uztartuz.
- **Baliabideak bideratzea eten digitala murrizteko**, prestakuntza-laguntzaren bidez eta erabiltzaileei etengabeko laguntza emanez.
- **Genero-ikuspegia indartzea ebaluazioan**, datuak sistematikoki bereiziz eta esku-hartzeak diseinatuz zainketen eta laguntzen karga orekatzeko.
- **Ereduen hedapena eta moldagarritasuna ziurtatzea**, arreta pertsonalizatua eta komunitatearen partaidetza zainduz.
- **Ebaluazio jarraituaren prozesuak txertatzea**, eragina neurtzeko, akatsetatik ikasteko eta diseinua doitzeko.
- Komunitatearen kapital soziala baloratzea eta indartzea, boluntariotza txertatuz, baina haren gainkarga eta mendekotasuna saihestuz.

Txosten honetan jasotako esperientzien azterketak erakusten du zainketetan berrikuntzak egin daitezkeela, eta beharrezkoa ere badela; horretarako, **estrategia, malgutasuna eta errotze komunitarioa** uztartu behar dira, egiturari eragiten dion erronka talde-aukera bihurtzeko.

Kapitulua 4

NEXT-CARE sarea: berrikuntza, ikerkuntza eta prestakuntza

Berrikuntzako, ikerketako eta prestakuntzako jardunbide egokien mapaketa eta frogapen-kasuak aztertu ondoren, NEXT-CARE proiektuak NEXT-CARE SAREA sortu du. Sare hori aukera estrategikoa da sortutako ezagutza kapitalizatzeko, inplikaturako eskualdeetan lankidetzako ekosistema bat finkatzeko eta irtenbide berritzaileak bizkor aurkitzeko. Sarearen helburua da esperientzia berritzaileak ikastea eta testuinguru desberdinetara zabaltzea, ikerketa aplikatua, prestakuntza jarraitua eta funtsezko gaitasunen garapena sustatuz arreta-sistemen, zainketen eta laguntzen esparruan. Sarearen esparruan egindako lana hainbat jardueratan gauzatu da, besteak beste, 2022an eta 2025ean egindako mintegi digitaletan. Topaketek esperientziak partekatzeko, oztopoak hautemateko eta gai garrantzitsuei buruzko ideiak proposatzeko balio izan dute – etxeko zaintzak, komunitatearen laguntza edo belaunaldien arteko elkartasuna –, bizi-luzetasunarekin eta mendekotasunaren prebentzioarekin lotutako zerbitzuen eta politika publikoen diseinua hobetzeko gako erabilgarriak eskainiz.

4.1. Mintegien helburuak eta metodologia

2022an eta 2025ean egindako mintegi digitalak elkarlaneko ikaskuntzarako eta zainketako jardunbide egokiak partekatzeko gune gisa sortu ziren, Euro-Eskualdeko eragile instituzionalak, akademikoak, komunitate- eta enpresa-eragileak elkartuz.

2022ko urritik abendura bitartean garatutako zikloaren helburua izan zen lurralde-eragileek – erakunde publikoek, hirugarren sektoreko erakundeek, enpresek eta unibertsitateek – bultzatutako berrikuntzako, ikerketako eta prestakuntzako jardunbide egokiak ezagutaztea, haien arteko lotura eta elkarlaneko ikaskuntza erraztea, eta jardunbide horiek lurraldeen artean partekatzeko eta zabaltzeko aukera irekitzea. Horrez gain, lortutako ikaskuntzak dokumentatu nahi dira, oztopoak eta baliabide estrategikoak identifikatu aldaketaren kultura sustatzeko, eta saioen garapena ebaluatu gomendioak egiteko.

2025ean, mintegiek sarearen helburu nagusiari eutsi zioten, eta hiru ardatz nagusi txertatu ziren berezko helburuekin:

1. Etxeko arreta: hauskortasuna goiz detektatzeko programa eta zerbitzu berritzaileak identifikatzea, eta ongizatean eta autonomian oinarritutako prebentzio-ereduak proposatzea.
2. Komunitateko zainketa: jardunbide egokiak eta oztopoak identifikatzea zainketa informalean eta komunitateko zainketan, eta laguntza, prestakuntza eta antolakuntza instituzionalerako neurriak proposatzea.
3. Belaunaldien arteko elkartasuna: belaunaldien arteko lankidetzarako oztopoak aztertzea eta loturak eta erantzukidetasuna indartzeko ekimenak proposatzea.

Helburu horiek lortzeko, saio bakoitzean testuinguruari eta definitutako lehentasunei egokitutako metodologia bat diseinatu eta ezarri zen, parte hartzeko tresnak, truke-dinamikak eta ebaluazio-prozesuak uztartuta. Ikuspegi horri esker, esperientziak aurkezteaz gain, proposamenak batera sortzeko eta sistematizatzeko gune bat sortu ahal izan zen, eta bermatu zen ikaskuntzak transferigarriak eta erabilgarriak izango zirela politikak eta zerbitzuak garatzeko.

2022an egindako mintegi digitalen funtsezko bost etapatan banatutako metodologia jarraitu zuten, eta etapa horiek prozesu osoa gidatu zuten, gaiak identifikatzetik hasi eta azken ebaluaziora arte:

1. Gaiak identifikatzea: ABEN Euro-Eskualdean alde zuzen egindako jardunbide egokien mapaketatik eta aurrez aurreko lankidetzatailer batetik abiatuta (2022ko martxoa), non 102 pertsonak parte hartu baitzuten, interes handieneko gaiak, zaintza-eredua aldatzeko oztopo nagusiak eta partekatze edo zabaltzeko modu adierazgarrienak lehenetsi ziren.
2. Diseinu metodologikoa: jardunbide egokiak elkarriketa-formatuan aurkeztean oinarritutako ikaskuntza interaktiboa aukeratu zen, elkarriketa lehenetsiz azalpenaren aurretik.
3. Prestakuntza: Jardunbide egokien arduradunek betetako galdetegietan oinarritutako fitxa praktikoa hirueledunak (euskara, gaztelania, frantsesa) eta elkarriketa-gidoiak egitea.
4. Burutzea: mintegi bakoitzean hainbat gonbidatu elkarriketatzea, ekarpenen eta ikaskuntzen azken balantzea egiteaz arduratzen den aditu baten laguntzarekin.
5. Ebaluazioa: saio bakoitzaren ondoren gogobetetasun-inkestak egitea, jardunbide egokien kalitatea, erabilgarritasuna eta horiek zabaltzeko aukerak baloratzeko.

2025ean egindako mintegiek ezarri zuten metodologia parte-hartzailea eta gai bakoitzari egokitu zen, aurretiko inkestak, esparru-txostenak eta baterako sorkuntzako tailerrak uztartuz.

Lehenengo bi mintegietan, aurrez egindako inkestak parte-hartzaileen ezagutza-maila eta hasierako pertzepzioak ezagutzeko balio izan zuten. Emaizak tailerretan aztertu eta erabili ziren abiapuntu gisa. Hirugarren mintegia belaunaldien arteko elkartasunari buruzkoa da. Mintegi horretan inkesta hori alde batera utzi zen gaia modu irekiagoan eta baldintzatu gabe aztertzeko.

Saio bakoitzak egitura bera izan zuen:

1. Irekiera instituzionala, mintegiaren helburua testuinguruan kokatzeko.
2. Eztabaida adituen ikuspegitik kokatzeko esparru-txostena.
3. Baterako sorkuntzako tailer paraleloak. Tailer horietan oztopo, aukera eta proposamen zehatzak identifikatu ziren.
4. Azken laburpena, eta ondoren, ekarpenen bilketa eta sistematizazioa txosten batean jasotzea.

Formatu horri esker, gizarte- eta osasun-esparruetako profesionalen, erakundeetako arduradunen, esparru akademikoko adituen eta komunitateko ordezkarien arteko trukea erraztu zen, eta elkarriketarako eta proposamenak taldean eraikitze gune bat sortu zen.

4.2. Mintegien emaitzak

2022an eta 2025ean egindako mintegiek hainbat ikaskuntza eta proposamen sortu zituzten, zaintzen berrikuntza hainbat ikuspegitatik bideratzen dutenak: etxeko arreta, zaintza komunitarioak, egoitza-zentroak eta belaunaldien arteko elkartasuna. Jarraian, edizio bakoitzaren emaitza nagusiak aurkezten dira, gaiaren eta urtearen arabera antolatuta.

Mintegien lehen zikloaren emaitzak (2022):

- **1. mintegia – Etxeko zaintza**
53 pertsonak parte hartu zuten, eta koordinazio soziosanitarioko esperientziak, zaintzaileentzako tresna digitalak eta etxean aplikatutako teknologiak ezagutu zituzten. Hainbat oztopo identifikatu ziren, hala nola sakabanatze geografikoa, sistemen elkarrengarritasunik eza eta aldaketarekiko erresistentzia kulturala, baita

konponbideak ere, hala nola garraiorako boluntariora edo diseinua erabiltzaileekin batera egitea. Egiaztatu zen teknologia ez dela oztopo nagusia, kultura-erresistentziak baizik, eta eredu eraginkorrenak etxebizitzaren, egoitzen eta komunitatearen arteko mugak lausotzen dituztela.

- **2. mintegia – Egoitza-zentroetako zaintza**
33 parte-hartzaile bildu zituen, eta profesionalen autozainketari, egoitzei lotutako etxebizitzari eta harremanetan oinarritutako arretari buruzko ekimenak azaldu ziren. Nabarmendu zen berrikuntza gehienbat lurraldetik sortzen dela, benetako beharretatik abiatuta, eta funtsezkoa dela kanpoko esperientzietatik ikastea. Oraindik ere egiteko dauden erronkak dirajardunbide egokiak kodetzea eta horiek zabaltzeko egitura izatea.
- **3. mintegia – Komunitateko zainketa**
32 parte-hartzaile bildu zituen, eta lau esperientzia aurkeztu ziren komunitateko proiektuen, datuen erabileraren, komunitateko laguntza-sarearen eta belaunaldi arteko boluntarioraren inguruan. Mintegian, arlo publikoa, pribatua eta komunitatekoa zaintza-sareetan uztartzearen garrantzia azpimarratu zen, bai eta politika publikoek komunitateko lidergoa indartzeko duten eginkizuna ere. Halaber, hainbat oztopo identifikatu ziren: konplexutasun instituzionala, erresistentzia kulturala, baliabide falta eta mugak datuen kudeaketan.

Mintegien bigarren zikloaren emaitzak (2025)

- **1. mintegia – Etxeko arreta-ereduak**
Mendekotasunaren prebentzioa ardatz hartuta, 11 proposamen berritzaile aurkeztu ziren, hala nola komunitateko radarrak, koordinazio soziosanitarioko unitate mugikorrak, informazioa partekatzeke kafeak eta gizarte-zerbitzuekin aldez aurretik kontakturik izan ez duten adinekoen erregistroak. Proposamenak funtsezko lau arlotan bildu ziren: sentsibilizazioa, alerta goiztiarra, esku-hartzea eta ebaluazioa. Ongizatean eta autonomian oinarritutako prebentzio-zerbitzuen beharra nabarmendu zen.
- **2. mintegia – Komunitateko zainketa**
Mintegi horretan komunitateko zaintza eta laguntza hobetzeko ekintzen katalogo bat sortzera bideratutako hainbat neurri proposatu ziren: azpiegiturak birpentsatzea irisgarriak eta partekatuak izateko, mapaketarako eta monitorizaziorako teknologia erabiltzea, eremu sakabanatueta zerbitzu mugikorrak eskaintzea, zaintzaile informalei laguntzea eta prestakuntza ematea, eta gizarte- eta kultura-jarduerak sustatzea. Zaintza jasangarria izateko komunitatearen eta erakundeen arteko erantzukidetasun nabarmenduz.
- **3. mintegia – Belaunaldien arteko elkartasuna**
Mintegi horretan parte-hartzaileek hausnarketa irekia egitea proposatu zen, eta honako oztopo hauek identifikatu ziren: kulturala (adinkeria, ikuspegi desberdinak), egiturazkoa (elkartzeko gunerik ez izatea) ekonomikoa (desberdinkeria eta emantzipazio-zailtasunak) eta politikoa (epe luzerako politikarik ez izatea). Proposatutako konponbideen artean honako hauek zeuden: belaunaldien arteko espazio fisikoak sortzea, lehendik zeuden komunitateko ekimenak babestea, lidergo inklusiboak bultzatzea eta belaunaldien artean balio komunak sustatzea.

Sortutako proposamen eta ondorioez gain, 2022ko mintegi digitalei esker, zehatz-mehatz ezagutu ahal izan ziren EAEn, Nafarroan eta Akitania Berrian etxe-ko, komunitateko eta egoitza-zentroetako zaintzak eta laguntzak hobetzera bideratutako jardunbide egokiak. Hona hemen jardunbide horien laburpena:

Jardunbidearen izena	Azalpena
EUSKADI	
Gizarea	Harremanetan oinarritutako arreta-eredua ezartzea dementzia duten pertsonentzako egoitza batean.
Kwido	Teknologia erabiliz adinekoak etxean zaintzea erraztuko duen plataforma bat sortzea.
NAFARROA	
Jubiloteca	Bitarteko laguntza-baliabidea. Helburua da adinekoen parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzea, eragile aktibo gisa, bakartze soziala eta nahi ez den bakardadea saihesteko.
EtxeTIC proiektua	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eta zaintzaileentzako zaintza-plan bat proposatzeko pentsatutako plataforma.
Egoitzari lotutako hamar etxebizitza sortzea	San Jeronimo Egoitzari lotutako 10 etxebizitza sortzea, pertsonak modu independentean bizi ahal izateko, lasaitasunez eta segurtasunez, eta behar dutenean zaintza eta arreta guztiak izateko.
"Echa un ojo" satellite-proiektua	Bizilagunen laguntza-sarea da, mendekotasun-egoeran edo egoera zaurgarrian dauden adinekoen bakardadearekin amaitzeko. Proiektuan parte hartzen duten boluntarioek, saltokiek, tokiko erakundeek, elkarteek etab. osatzen dute laguntza-sarea.
Komunitatearen parte-hartzea: BIDASOA ZUREKIN, Komunitate errukitsua	Gaixotasun aurreratuan dauden edo zainketa aringarriak behar dituzten pertsonentzako eta haien familientzako zainketa- eta laguntza-sareak sortzea, kudeatzea eta horietan inplikatzeko.
TEKNOADINEKO	Lankidetzak publiko-pribatua proposatzen du, zaintza tradizionala eta berrikuntza teknologikoa uztartzen dituen eta biztanleria ahulenaren zerbitzura jartzen duen esku-hartze sozialeko eredu berritzaile bat probatzeko. Eredua hiru sektoretan egituratzen da: nazioarteko ikaskuntzak, gizarte-teknologia eta komunitatea oinarri duen ikuspegia.
AKITANIA BERRIA	
AIDI	Zaintzaileei laguntzeko aplikazio digitala, aholku praktikoak, zaintzaileei laguntzeko zerbitzuen eta eragileen direktorioa; lurraldeko zaintzaileei laguntzeko ekitaldien agenda; eta 24/7 laguntza-linea telefonikoa barne hartzen dituen.
Yoga egoitza geriatrikoetan: osasuna eta bizi-kalitatea lanean	Jardunbide hori zaintzaileei zuzenduta dago, kirol- edo meditazio-jarduera pertsona gutxi egiten zutela ikusi baitzen. Osasunera eta laneko bizi-kalitatea bideratuta dago.
Seniorren elkartasun-zerbitzu zibikoa	Komunitatearen onura helburu duen proiektua da eta 16-25 urteko gazteek borondatez parte hartzen dute (30 urtera arte, desgaitasuna duten pertsonen kasuan); Astean 24-35 ordu 6-12 hilabetez. Hilean 601 € ordainduta (gainerako 111 € harrera erakundearen kontura). Irabazi-asmorik gabeko egiturak.

4.3. Azken gogoetak eta ikasitako ikasgaiak

2022-2025 aldian, NEXT-CARE sareak talde-ikas-kuntza baliotsua sortu du bizi-luzetasuneko zainketak eta laguntzak berritzeko moduari buruz. Urtero egin-dako mintegiek ñabardura desberdinak dituzten arren, ondorioek norabide bera jarraitzen dute: **prebentzio-, komunitate-, belaunaldien arteko- eta pertsona ardatz duen eredu bat, non teknologia epe luzeko harremanen eta jasangarritasunaren esku dagoen.**

Bi aldiak alderatuta, **zeharkako zazpi ikasgai nagusi** nabarmentzen dira:

- **Prebentzioa paradigma gisa.**
Narriaduraren aurretik jarduteko, zerbitzu irisgarriak, proaktiboak eta lurraldean ainguratuak behar dira. Funtsezkoak dira sentsibilizazioa, alerta goiztiarra eta pertsona hauskorrei laguntzea.

- **Komunitatea zaintza-azpiegitura gisa.**
Tokiko sareek bakardadea murrizten dute, etxe-ko zaintza babesten dute eta esku-hartze sanitarioa arintzen dute. Jubiloteca, Bidasoa Zurekin, Satellite edo Teknoadineko esperientziek erakusten dute gizarte-harremanak baliabide estrategiko bihurtzen direla.
- **Gizakia helburu eta ardatz duen teknologia**
Erronka ez da teknikoak, kulturala baizik. Konponbideak baliagarriak dira erabiltzaileekin eta zaintzaileekin batera garatzen direnean, benetako premiei erantzunez (Kwido, AIDI, Adarpea). Robotikan izandako porrotak eta ondoren Adarpeako yoga gisako aukerak izandako arrakastak erakusten dute aldaketa hori.
- **Koordinazioa eta lidergo publikoa**
Berrikuntzak gobernantza partekatua, helize lau-koitzaren parte-hartzea eta lidergo instituzionala behar ditu koordinazio soziosanitariorako eta komunitatea koordinatzeko.
- **Jasangarritasuna eta hedapena**
Proiektuak probako fasean geratu ohi dira. Eten-gabeko finantzaketa eta hedapen-mekanismo-


ak behar dira, sistema denboran mantendu ahal izateko eta dagoeneko erabilgarri dauden baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

- **Datuen elkarreragingarritasuna eta kudeaketa.** Erronkak zerikusi handiagoa du antolatzeke moduarekin eta legeekin teknologiarekin baino. Aurrera egiteko, gobernantza-akordioak, antolamendu-berrikuntza eta datuen babesaren bermea behar dira.
- **Belaunaldiartekotasuna eta ekitatea.** Interesa partekatzen denean, belaunaldien arteko interakzioak zainketaren kultura aberasten du. Gainera, politikek bizi-ziklo osoaren ikuspegia izan behar dute, eta ibilbideen aniztasuna onartu behar dute.

Ondorioen laburpena eta ikasitako ikasgaiak ez dira soilik azterketan geratu behar. Zainketen eta laguntzen berrikuntza benetako aldaketa bihur dadin, beharrezkoa da **ikaskuntza horiek ekintza zehatz eta praktikoetan oinarritzea**. Ildo horretatik, honako hau gomendatzen da:

- Prebentzioa zerbitzuen eta laguntzen **ardatz izatea**.
- Komunitate-sareak eta preskripzio soziala **indartzea**, bakardadea murrizteko.
- Gizakian oinarritutako, elkarrekin diseinatutako eta benetako beharretara egokitutako teknologia **sustatzea**.
- Lidergo publikoa eta koordinazio soziosanitarioa eta komunitateko koordinazioa **indartzea**.
- Finantzaketa egonkorra **ziurtatzea** iraun eta hedatu dadin.
- Datuen kudeaketaren arloko antolaketa- eta lege-elkarreragingarritasunean **aurrera egitea**.
- Ikaskuntzak **kodetzea eta partekatzea**, hartu-eman bisitekin eta dokumentazio erabilgarriarekin.
- Benetako testuinguru eta motibazioetan oinarritutako belaunaldien arteko ekimenak **sustatzea**.

NEXT-CARE sareak erakusten du zainketen eta laguntzen arloko berrikuntza eraginkorrak prebentzioa, komunitatea, helburua duen teknologia, koordinazioa eta jasagarritasuna behar dituela. Elementu horiek bat datozenean, aldaketek probako fasea gainditzen dute eta sistemaren egitura-ahalmenaren esku gelditzen dira.



6. irudia. Ikaskuntza nagusiak

Kapitulua 5

Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren mugaz gaindiko gida

Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren gida NEXT-CARE mugaz gaindiko proiektuaren emaitza nagusietako bat da. Helburua da 2021 eta 2025 bitartean egingako jardunbide egokien mapaketan eta trukerako mintegietan ikasitakoa laburbiltzea eta arreta- eta zaintza-ereduak eraldatu nahi dituztenen zerbitzura jartzea. Gidak Euskadiko, Nafarroako, Akitania Berriko eta Okzitaniako etxe, egoitza eta komunitateetan garatutako esperientziak jasotzen ditu.

Aniztasuna gorabehera, ekimen guztiek helburu komun bat dute: **arreta-eredu prebentiboagoak, pertsonalizatuagoak eta jasangarriagoak sustatzea**, adinekoen eta haien zaintza-inguruneen autonomia, gizarte-harremanak eta hautatzeko gaitasuna indartzeko.

5.1. Helburuak eta metodologia

Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren gidaren helburua da **arreta eta zaintza ereduetan berrikuntza txertatzea erraztea**, etxean, egoitza-zentroetan eta komunitate esparruan. Horretarako, esparru praktikoa bat eskaintzen du, honako ezaugarri hauekin:

- Bizi-luzetasunaren benetako berrikuntza-esperientziak **sistematizatzen ditu**.
- Zerbitzuak diseinatzeko eta hobetzeko funtsezko prozesuak eta gaiak **identifikatzen ditu**.
- Lurraldeen artean jardunbide egokiak partekatzea eta eremu bakoitzera egokitzea, eta hedatzea **erazten du**.

Gida egiteko erabilitako metodologia **bi informazio-eta ikaskuntza-iturri nagusitan oinarritu da**:

1. 2021eko urritik abendura bitartean NAEN Euro-Eskualdean garatutako **jardunbide egokien mapaketa**. Bertan, udalek, hirugarren sektoreko erakundeek, unibertsitateek eta enpresek etxeetan, egoitzetan eta komunitateko esparruetan sustatutako 52 esperientzia berritzaile identifikatu ziren.
2. **NEXT-CARE sarearen mintegi digitalek**, 2022an eta 2025ean egin zirenak, aukera eman zuten esperientziak partekatzeko, mapaketaren emaitzak sakon aztertzeko eta zainketa-ereduak eraldatzeko funtsezko gaiak identifikatzen aurrera egiteko.

Iturri horien azterketatik abiatuta, patroir errepikatuak eta ikaskuntza erabilgarriak sortu ziren, eta **bizi-luzetasuneko berrikuntzaren NEXT-CARE ereduak laburbildu dira**. Eredu hori bost prozesutan eta 17 gaitan egituratuta dago.


5.2. Berrikuntzako NEXT-CARE eredua

Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren NEXT-CARE eredua **elkarren artean lotutako 5 prozesutan** egituratzen da, mapaketan eta proiektuak trukatzeko mintegietan jasotako esperientziak ordenatzeko eta sistematizatzeko. Prozesu bakoitzak jardunbide egokien multzo bat biltzen du. Multzo bakoitza premiak identifikatzetik emaitzak zabaltzera bitarteko **17 gai nagusitan** dago antolatuta:

- 1. Diagnostikoa:** gizarte-testuingurua, hauskortasun- eta mendekotasun-maila eta zaintzarako eskuragarri dauden baliabideak aztertzen ditu.
- 2. Prototipoak egitea:** diagnostikoan lortutako informazioa aztertzen du eta esku-hartzearen elementuak definitzen ditu.
- 3. Esku-hartzea:** hauskortasun- eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, haien zaintzaileei —formalak eta informalak— eta komunitateri zuzendutako jarduketak biltzen ditu.
- 4. Ebaluazioa:** lortutako emaitzak neurtzen ditu, eta eragin-adierazleak txertatzen ditu bizi-kalitatean, efizientzian eta kostu-onuran.
- 5. Hedapena:** berrikuntzak sistematizatu, egokitu, jakinarazi eta zabaltzen ditu, denboran zehar mantendu ahal izateko eta leku edo egoera desberdinetan erabili ahal izateko.

Prozesu horiez gain, ereduak zeharkako **lau ardatz ditu —erronkak, ideiak, berrikuntza eta inpaktua—**, faseen arteko ardatz nagusi gisa jarduten dutenak. Ardatz horiek aukera ematen dute ikaskuntzak balioproposamen bihurtzeko, diagnostikoaren eta esku-hartzearen arteko koherentzia ziurtatzeko, eta, amaieran, emaitzak partekatzeko eta zabaltzeko.

7. irudiak grafikoki laburbiltzen du bizi-luzetasuneko berrikuntzaren NEXT-CARE eredua, eta eredu hori osatzen duten prozesuen, gaien eta zeharkako ardatzen arteko lotura erakusten du:



7. irudia. Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren NEXT-CARE eredua

5.3. Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren gida hedatzea

Gidaren hedapena NEXT-CARE ereduaren bost prozesuen bidez egituratzen da: diagnostikoa, prototipoak egitea, esku-hartzea, ebaluazioa eta hedapena. Horietako bakoitzak jardunbide egokien multzo bat biltzen du, bizi-luzetasuneko berrikuntzaren printzipioak praktikara nola eraman erakusten dutenak, bai etxean, bai egoitza-zentroetan, bai komunitatean.

I. prozesua. Diagnostikoa

NEXT-CARE ereduaren lehen urratsa **bizi-luzetasunaren errealitatea eta inplikaturako lurraldeetako zaintza eta laguntzak ulertzean datza**. Prozesu horrek jardunbide egokiak biltzen ditu, gizarte-joerak identifikatzen, hauskortasuna eta mendekotasuna aztertzen eta dauden baliabideen eta esperientzien mapaketak egiten laguntzen dutenak.

Diagnostikoak ezagutza-oinarri bat eraikitzen du, eta horrek ahalbidetzen du erronkei aurrea hartzea, benetako beharretara egokitutako esku-hartzeak diseinatzea eta baliabideen erabilera optimizatzea. Jasotako ekimenek erakusten dutenez, datuen azterketa zorrotza, eragileen arteko lankidetzak eta testuinguruen ebaluazioa funtsezkoak dira zainketen eta laguntzen berrikuntza arrakastaz bideratzeko. Jardunbide egokiak **hiru gai nagusitan bildu dira**:

- 1. **Gizarte-testuinguruko joerak:** zahartzearen bilakera eta horren gizarte-, ekonomia- eta lurralde-ondorioak ulertzeko behatokiak, ikerketak eta tresnak.
- 2. **Hauskortasuna eta mendekotasuna:** adinekoen hauskortasuna eta mendekotasuna identifikatzeko, baloratzeko eta prebenitzeko metodologiak eta gailuak.
- 3. **Baliabideak eta esperientziak:** zainketetan eta laguntzetan esku hartzeko eta berritzeko gaitasuna indartzen duten baliabideen eta jardunbideen mapak egitea eta trukatzeko.

Hurrengo taulan, I. Diagnostiko Prozesuko jardunbide egokiak azaltzen dira, gaika antolatuta.

Gaia	Jardunbidearen izena	Azalpena
Gizarte-testuinguruko joeren azterketa	ADINBERRI SIA Euskadi https://sia.adinberri.eus/es/	Zahartzeari buruzko ezagutza trukatzeko, joerak identifikatzeko eta etorkizuneko egoerak diseinatzeko erreferentziako plataforma. Ezagutza partekatzen du, erronkei aurrea hartzeko eta erabaki estrategikoak hartzen laguntzeko.
Hauskortasuna eta mendekotasuna	BaTurán Euskadi https://www.hurkoa.eus/es/servicios/atencion-personas-en-situacion-de-riesgo-y-o-fragilidad	Etxean mendekotasun-egoera larrian bizi ez diren 65 urtetik gorako pertsonen gizarte-hauskortasuna diagnostikatzeko eta baloratzeko tresna, hauskortasunaren funtsezko lau alderdi ebaluatuz: eguneroko bizitzako jarduerak, sare sozialak eta gizarte-partaidetza, bizi-proiektua eta testuingurua.
Hauskortasuna eta mendekotasuna	Teknoadineko Euskadi www.agintzari.com	Teknologia, komunitatearen partaidetza eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza barne hartzen dituen esku-hartze eredu, hauskortasun- eta bakardade-egoerak goiz detektatzeko eta sailkatzeko.
Baliabideak eta esperientziak	SAREA proiektua (POCTEFA) Mugaz gaindikoa https://sareaproiektua.eu	Mugaren bi aldeetako erakundearen arteko lankidetzak profesionalen sare, esperientziak partekatzeko, ohiko arazoak identifikatzeko eta esku-hartze sozialerako tresnak eta teknikak garatzeko.
Baliabideak eta esperientziak	NEXT-CARE sare Mugaz gaindikoa https://www.next-care.eu/	Mugaz gaindikoa plataforma, berrikuntza, ikerketa eta prestakuntzako eragileak elkartzen dituen, etxeko, egoitzetako eta komunitateko zainketetan eta laguntzetan jardunbide egokiak ikasteko, partekatzeko eta zabaltzeko.

II. prozesua. Prototipoak egitea

NEXT-CARE ereduaren bigarren urratsa da diagnostikoan lortutako ezagutza esku hartzeko proposamen zehatz bihurtzea. Prozesu horrek **jardunbide egokiak biltzen ditu diagnostikoaren emaitzak aztertzeko eta lurralde bakoitzean identifikatutako premiei** erantzun-go dieten esku-hartze proposamenak sortzeko.

Prototipoek aukera ematen dute konponbide berritzaileak probatzeko, diseinatzeko eta baliozkotzeko eskala handiagoan ezarri aurretik. Jasotako esperientziek erakusten dute sormenak, baterako sorkuntzak eta testuinguruaren analisiak zaintza-eredu pertsonalizuatuak, jasangarriagoak eta pertsonarengan zentratuak errazten dituztela.

Jardunbide egokiak bi gaitan bildu dira:

- Diagnostikoaren **interpretazioa**: aurretiazko datuak eta analisiak testuingurura egokitutako erabaki estrategiko eta jarduketa-eredu bihurtzen dituzten jardunbideak.
- Esku hartzeko ideiak **sortzea**: metodologiak eta lankidetzak-espazioak, bizi-luzetasunaren eta zainketen eta laguntzen erronkei helduko dieten proposamen berritzaileak sortzeko.

Hurrengo taulan **II. prozesuko jardunbide egokiak jasotzen dira. Prototipoak egitea**, gaika antolatuta.

Gaia	Jardunbidearen izena	Azalpena
Diagnostikoaren interpretazioa	Egoitzari lotutako 10 etxebizitza sortzea Nafarroa http://residenciasanjeronimo.com/	Hauskortasun egoeran dauden adinekoentzako etxebizitza autonomo eta seguruen beharra hauteman zuen diagnostiko parte-hartzaile batetik sortutako proiektua. San Jeronimo Egoitzari lotutako 10 etxebizitza eraiki ziren, hurbileko arreta-zerbitzuekin independentzia eskainiz, intimitatea errespetatuz eta behar denean zaintza bermatuz.
Esku hartzeko ideiak sortzea	GizarteLAB Euskadi https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/proyectos/gizartelab/pr-60/	Gizarte-berrikuntzako programa, funtsezko aldaketei (energetikoa, teknologikoa, demografikoa) buruzko prestakuntza teorikoa eta ideia eta proiektu eraldatzaileak sortzeko tailer praktikoak barne hartzen dituena. Aldaketara bideratutako komunitateak barne hartzen ditu, jardunbide egokiak trukatzeko eta epe ertainerako aldaketa-sare autonomoak finkatzeko.

III. prozesua. Esku-hartzea

NEXT-CARE ereduaren hirugarren urratsa da **arreta, zainketak eta laguntzak hobetzeko ekintza zehatzak abian jartzea ingurune guztietan** —etxean, egoitza-zentroetan eta komunitatean—, aurreko faseetan hautemandako premiei zuzenean erantzunez. Prozesu horrek jardunbide egokiak biltzen ditu, eta erakusten du nola ezarri daitezkeen ikuspegi berritzaileak pertsona hauskorrak, mendekoak, zaintzaileak eta komunitateak artatzeko, arreta pertsonalizatuaren bidez, eragileen arteko koordinazioaren bidez eta tokiko baliabideak aprobetxatuz.

Prozesu honetako ekimenek erakusten dutenez, esku-hartze eraginkor batek profil bakoitzera egokitutako estrategiak, pertsona ardatz duten metodologiak eta profesionalak, familiak, boluntarioak eta komunitatea barne hartzen dituzten lankidetzaren sareak behar ditu.

Jardunbide egokiak bost gaitan multzokatu dira:

1. **Hauskortasun-egoeran dauden pertsonak:** detektatzeko, prebenitzeko eta arreta pertsonalizatua emateko ekintzak, haien autonomia eta ongizatea zaintzen laguntzeko.
2. **Mendeko pertsonak:** arreta integrala sustatzen duten eredu eta programak, haien bizimoduak eta erabakiak errespetatuz.
3. **Zaintzaileak (familiako senideak eta hurbilekoak):** familiako pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako babesa, prestakuntza eta laguntza.
4. **Zaintzaileak (profesionalak):** gaitzeko, espezializatzeko eta lan-baldintzak hobetzeko ekimenak.
5. **Komunitatea eta hurbiltasuna:** komunitate-zaintzarekin lotutako esperientziak eta adinekoiei laguntzeko sare solidarioak.

Hurrengo taulan **III. prozesuko jardunbide egokiak jasotzen dira. Esku-hartzea**, gaiaren arabera antolatuta.

Gaia	Jardunbidearen izena	Azalpena
Pertsona hauskorak	Zonako talde eragileak Nafarroa	Oinarrizko eremu bakoitzeko diziplinarteko taldeak, lehen mailako osasun-arreta eta gizarte-zerbitzuak barne hartzen dituztenak, kasu-ku-deaketa eta balorazio soziosanitario partekatua dutenak premia soziosanitario konplexuak dituzten pertsonen arreta emateko.
Pertsona hauskorak	DOMCARE Akitania Berria https://mispb.com/usager-ou-accompagnant/accompagnement-medico-social-ssiad-et-domcare/	Larrialdiei erantzuteko gaueko zerbitzua, adinekoak etxera modu seguruan itzultzea bermatzen duena, haien egoera ebaluatuz eta hurrengo egunetako zainketen eta laguntzen jarraipena koordinatuz.
Pertsona hauskorak	Ogénie – Nahi ez den bakardadearen prebentzioa Okzitania https://www.hautespyrenees.fr/seniors/prevention/ogenie-un-nouvel-outil-pour-creer-du-lien-a-destination-des-seniors-dans-les-hautes-pyrenees/	Isolatutako adinekoak detektatzeko eta tokiko gizarte-jarduera eta -baliabideetara hurbiltzeko plataforma. Galdera-sortak eta komunitateko eragileen laguntza barne hartzen ditu.
Pertsona hauskorak	Ma Maison A'Venir Okzitania http://mamaisonavenir.fr/concept/	Proiektu ibiltaria, egokitutako kamioi batekin. Kamioi horrek etxebizitza itxura du, eta egokitapenei buruzko aholkularitza praktikoa eta erorketak prebenitzeko eta etxean autonomia sustatzeko laguntza teknikoak eskaintzen ditu.
Mendekotasuna duten pertsonak	Gizarea Euskadi https://www.ifbscalidad.eus/es/iniciativas/gizarea-atencion-centrada-en-las-relaciones/43/	Harremanetan oinarritutako arreta-eredua, zaindutako pertsonen, familien eta profesionalen arteko elkarrekikotasuna eta harremanak balioesten dituen zainketaren kalitatea bermatzeko.
Mendekotasuna duten pertsonak	Etxean Bizi Euskadi https://www.matiainstituto.net/es/proyectos-de-investigacion/proyectos/etxean-bizi	Adinekoak etxean ahalik eta denbora gehien egotea errazteko programa, haien nahiak errespetatuz eta arreta integrala eta malgua eskainiz.
Zaintzaileak (senideak eta hurbilekoak)	OK en Casa Euskadi https://okencasa.com/	Familiako senide diren zaintzaileei laguntza integrala emateko programa (gaiakuntza, laguntza psikosoziala eta baliabide logistikoak), haien ongizatea eta zaintzaren kalitatea hobetzeko.
Zaintzaileak (senideak eta hurbilekoak)	Zaintzaileen astea Okzitania https://www.hautespyrenees.fr/	Familiako senide diren zaintzaileak sentsibilizatzeko, informatzeko eta atsedeen-espazioak eta jolas-jarduerak eskaintzeko ekimena, laguntza eta eztabaida-taldeak barne.
Zaintzaileak (profesionalak)	Autonomiarako Montessori metodoari buruzko prestakuntza Frantzia https://www.resantevous.fr/actions-resante-vous/for-mer-les-professionnels/	Zaintzaile profesionalak gaitzea Montessori metodora egokitzeko, adinekoen autonomia sustatzeko. Prestakuntza praktikoa eta ondoren online baliabideetarako sarbidea barne hartzen ditu.
Zaintzaileak (profesionalak)	Adinprest Euskadi https://www.adinberri.eus/es/-/el-proyecto-adinprest-impulsado-y-confinanciado-por-la-fundacion-adinberri-ya-est-en-marcha	Zainketei eta laguntzei buruzko prestakuntza- eta ziurtapen-programa, pertsonarengan oinarritutako arretaren espezializatua, 45 urtetik gorako emakume langabeentzako praktika profesionalak eta enplegu-aukerak barne hartzen dituena.
Zaintzaileak (profesionalak)	BEGIRADA – POA espezializazio-programa Euskadi https://www.matiainstituto.net/es/proyectos-de-investigacion/proyectos/begirada-aprende-aprender-mirar	Pertsonarengan oinarritutako arretaren lanbide-espezializazioa, curriculum homologatuarekin, zerbitzu soziosanitarioetako zainketa- eta laguntza-eredua eraldatzera bideratua.
Zaintzaileak (profesionalak)	Koordinazioan laguntzeko gailua (KLG) Frantzia https://www.dac-64.fr/ / https://www.relais-sante-pyrenees.fr/relais-sante-pyrenees/organisation	Behar konplexuak dituzten pertsonen arreta soziosanitarioa koordinatzeko lurralde-plataforma, orientazioa, jarraipena eta osasun-plan pertsonalizatuak eskainiz.
Komunitatea eta hurbiltasuna	Comarca Compasiva Euskadi	Gaixotasun aurreratua edo zainketa aringarriak dituzten pertsonak zaintzeko, laguntzeko eta lagun egiteko komunitate-sarea, boluntariotzak eta koordinazio sanitarioak bultzatua.
Komunitatea eta hurbiltasuna	Jubiloteca Nafarroa https://bortziariakgz.eus/es/	Elkartzeko eta aisialdiko gunea da; bertan, mendekotasuna prebenitzen da, gizarte-partaidetza sustatzen da eta arlo fisikoa, kognitiboa eta emozionala lantzen dira.
Komunitatea eta hurbiltasuna	Nagusilan Euskadi https://nagusilan.org/	Nahi gabeko bakardadean dauden adinekoei laguntzen dien boluntariotza-elkartea, zahartze aktiboa eta konpromiso solidarioa sustatzen dituen.
Komunitatea eta hurbiltasuna	Mirada Activa Euskadi	Nahi gabeko hauskortasuna eta bakardadea detektatzeko eta horiei erantzuteko sarea, adinekoen elkarteak, profesionalak eta herritarrak mobilizatuz auzo-lotura egonkorak sortzeko.

IV. prozesua. Ebaluazioa

NEXT-CARE ereduaren laugarren urratsa **esku-hartze berritzaileen inpaktua neurtzea eta baloratzea da**. Ebaluatzeak aukera ematen du ezarritako irtenbideek aurreikusitako helburuak betetzen dituzten egiaztatzeko, baliabideak optimizatzeko eta erabakiak hartzea eta ekimenak errepikatzea erraztuko duten ebidentziak sortzeko.

Prozesu honetan jasotako jardunbide egokiek erakusten dute etengabeko jarraipenak, ongizatearen neurketak eta kostu-onuraren analisiak benetako beharretara egokitutako esku-hartze eraginkor eta jasangarriak hobetzen eta/edo finkatzen laguntzen dutela.

Ekimenak **hiru gaitan bildu dira**:

- 1. Monitorizazioa eta tarteko eraginak:** esku-hartzeen etengabeko jarraipena egiteko, aurrerapenak identifikatzeko eta litezkeen doikuntzak hautemateko metodologiak eta tresnak.
- 2. Bizi-kalitatean duen inpaktuaren ebaluazioa:** neurketa-sistemak, ekintzek onuradunen ongizatean eta autonomian nola eragiten duten baloratzeko.
- 3. Esku-hartze berritzaileen kostu-onuren ebaluazioa:** gizartean izandako inpaktua eta bizi-kalitatean izandako eragina, egindako inbertsioarekin alderatzen dituen azterketa, proiektuen efizientzia eta jasangarritasuna baloratzeko.

Hurrengo taulan **IV. prozesuko jardunbide egokiak jasotzen dira. Ebaluazioa**, gaika antolatuta.

Gaia	Jardunbidearen izena	Azalpena
Monitorizazioa eta tarteko eraginak	Ekosistemen monitorea (Zaintza HerriLab) Euskadi https://zaintzaherriab.eus	Zaintzen eta laguntzen tokiko ekosistemetako proiektuen etengabeko jarraipena egitea, haien bilakaera, eskura dauden baliabideak eta haien garapena zailtzen edo bultzatzen duten faktoreak ezagutzeko, ikaskuntza eta hedapena sustatuz.
Eraginaren ebaluazioa (bizi-kalitatea)	Nahi ez den bakardadeari aurre egiteko zubiak eraikiz (Errenteria) Euskadi	Adinekoen inklusio soziala sustatzeko proiektua, gizarte-diagnostikoaren, ekomapen eta bizi-kalitatearen ebaluazioaren bidez (CUBRECAVI).
Eraginaren ebaluazioa (bizi-kalitatea)	Pasaia Zaintza HerriLab Euskadi https://zaintzaherriab.eus/es/w/pasaia-herriab-cas	Pasaia zainketen eta laguntzen ekosistema ebaluatzea EHUrekin batera diseinatutako metodologia batekin, erakundearteko lankidetzan duen eragina neurtzeko gida barne.
Eraginaren ebaluazioa (bizi-kalitatea)	Etxean Bizi Euskadi https://www.matiainstituto.net/es/proyectos-de-investigacion/proyectos/etxean-bizi	Adinekoen etxean jarraitzeko aukera ematen dien ereduak ekonomian eta gizartean duen eraginaren ebaluazioa, egoitza zentroetako bizi-kalitatea eta kostu berdinak edo txikiagoak bermatuz.
Eraginaren ebaluazioa (bizi-kalitatea)	OK en Casa (kostu-onurak) Euskadi https://okencasa.com	Kostu-onuren azterketa, JELrekin lankidetzan, mendekotasuna duten adinekoen familiako senide diren zaintzaileei laguntzeko programa integral batek ekonomian eta gizartean duen eragina ebaluatzeko.

5.4. Amaierako ondorioak eta gomendioak

NEXT-CARE ereduak erakusten du bizi-luzetasuneko berrikuntza ez dela luxu bat, **bizi-kalitatea hobetze-ko, autonomiak gehiago irauteko eta zainketa- eta laguntza-sistemak indartzeko behar estrategikoa baizik**. Bost prozesutan egituratzen da – diagnostikoa, prototipoak egitea, esku-hartzea, ebaluazioa eta hedapena –, eta ibilbide-orri argia ematen du ezagutza ekintza zehatz, jasangarri eta aplikagarri bihurtzeko.

Mugaz gaindiko esperientziatik **funtsezko lau gako** sortzen dira arrakastaz berritzeko:

- **Gizarte-berrikuntza:** pertsonaren benetako beharrak entzutea eta ardatz izatea, komunitatea, sektore publikoa, sektore pribatua eta ikerketa inplikaturik (helize laukoitzea). Teknologia baliabide bat da, baina komunitatea funtsezko eragilea da.
- **Berrikuntza teknologikoa:** teknologia txertatzea, erabiltzaileen beharrak, kezkak eta itxaropenak kontuan hartuta, eta elkarreragingarritasuna eta datu soziosanitarioen erabilera arduratsua ziurtatzea.
- **Gizarte-berrikuntza instituzionala:** aliantza sendoak eta jasangarriak eraikitzeke gai den lidergo publikoa finkatzea, fase pilotua gaitzen duten eta ekimenen jarraitutasuna eta hedapena bermatuko duten finantzaketa-ereduekin.
- **Antolaketa-berrikuntza:** aitortzea zainketa ez dela beti medikuen bidez egiten, gizarte-harreman sendoen bidez baizik. Koordinazio soziosanitarioa eta nahi ez den bakardadearen prebentzioa eta murrizketa ere osasun-arloko esku-hartzeak dira.

Horretan oinarrituta, aurrera egiteko hainbat gomendio praktikoa ematen dira:

1. Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren gidaren eta jardunbide egokien multzoaren hedapena indartzea lurralde guztietan, bereziki Nafarroan eta Akitania Berrian, ordezkariak orekatuagoa lortzeko.
2. Erakundeei laguntzea beren jardunbideak dokumentatzen eta egokitzen, NEXT-CARE sareko ekosisteman sartzea erraztuz.
3. Klusterrak sustatzea, sinergiak sortu, ezagutzak partekatu eta beste leku batzuetan aplikatu daitezkeen proiektu pilotuak garatzen dituzten gaien edo eremuen arabera.
4. Eraginkorrak diren jardunbideak partekatzea eta zabaltzea sustatzea, tokiko testuinguru desberdinetara egokitzen direla eta ekonomikoki denboran zehar mantendu ahal izatea ziurtatuz.
5. Berritzen jarraitzea, pertsonengan pentsatuz, lehenetsia emanaz pertsonalizazioari, komunitatearen partaidetza bultzatuz eta irisgarriak eta baliagarriak diren teknologiak erabiliz.

Bizi-luzetasuna berritzeak esan nahi du gizatasuna, antolamendua eta teknologia uztartzea, zainketa-ekosistema eta laguntza hurbilagoak, eraginkorrak eta jasangarriagoak sortzeko. **Erronka da indarrak batzea, jada emaitza onak eman dituen zabaltzea eta arreta benetan axola duen horretan jartzea: pertsonak gehiago eta hobeto bizitzea elkar zaintzen duten komunitateetan.**

Kapitulua 6

Bizi-luzetasunaren politika soziosanitarioak eta berrikuntzaren politikak

Aldaketara bideratutako politika soziosanitarioek osasun-zerbitzuen, gizarte-zerbitzuen eta komunitateko esparruen arteko tokiko koordinazioa errazten duten arauak, programak eta tresnak biltzen dituzte, hauskortasun- edo mendekotasun-egoeran dauden adinekoei etengabeko arreta bermatzeko.

Bizi-luzetasuneko berrikuntzaren dinamikak ulertzeko, ezinbestekoa da dinamika horiek garatzen diren testuinguru instituzionaletan kokatzea. Testuinguru horiek ulertzeko, 2023ko azarotik 2024ko martxora bitarteko NEXT-CARE eskualdeen politika soziosanitarioen azterketa konparatua egin da. Azterlan hau COVID-19aren eraginak baldintzatutako testuinguru instituzional batean kokatzen da. Testuinguru horrek egitura-gabeziak nabarmendu zituen egoitzetako eta etxeko zainketetan, eta zenbait erronka identifikatu zituen, hala nola nahi ez den bakardadea, zainketen feminizazioa eta informaltasuna eta etxeko zainketa-zerbitzuen eskasia. Era berean, krisiak berrikuntza-aukerak ekarri zituen: komunitate-sareak, sektoreen arteko lankidetzak eta pertsona ardatz duten gizarte- eta osasun-arreta uztartzen dituzten ereduak.

6.1. Azterketa konparatuaren helburuak eta metodologia

Politika Soziosanitarioen azterketa konparatua hauskortasun- eta mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zainketa-ereduen aldaketa bideratzeko tresna da. Bere helburu nagusia da **esparru soziosanitarioak NEXT-CARE proiektuaren lau lurraldeetan** —Euskadi, Nafarroa, Pirinio Atlantikoak eta Okzitania— duen funtzionamendua aztertzea eta alderatzea, arreta berezia jarriz komunitate-dinamiketan eta sistemen arteko koordinazio-mekanismoetan. Testuinguru horretan, helburu zehatzak honako hauek izan dira:


1. Lurralde bakoitzeko espazio soziosanitarioaren antolaketa, funtzionamendua eta ezaugarriak **aztertzea**, bereziki komunitate-dinamikak.
2. Antzekotasunak, desberdintasunak eta erronka partekatuak **identifikatzea**, bai eta horiei aurre egiteko testuinguru bakoitzean hedatutako estrategia zehatzak ere.
3. Esparru soziosanitarioak eraikitze orduan **kontuan hartzea** komunitate-esparruak duen ahalmena.
4. Koordinazio soziosanitarioko politiketatik, tresnetatik eta estrategietatik **ikastea** eta gomendioak ematea.

Metodologiak lau fase osagarritan egituratutako prozesua jarraitu du:

1. **Aztertutako sistema soziosanitario bakoitzaren deskribapen orokorra:** araudiak, lege-esparruak, plan estrategikoak eta esparru soziosanitarioa antolatzekeo tresnak berrikusi dira.
2. **Jardunbide egokien mapaketa, hautaketa eta sistematizazioa:** esperientzia garrantzitsuak identifikatu, aztertu eta hautatu dira, esku-hartze mailaren —handia, ertaina edo txikia— eta tresna motaren —gobernantza, kudeaketa, arreta— arabera.

3. **Elkarriketa sakonak:** azterlan kualitatibo txiki bat egin da, gizarte- eta osasun-arloko 11 adituri eta erakundeetako arduraduni egindako elkarriketa zehatzetan oinarritua. Aditu horiek beren esperientziagatik eta ordezkatzeko duten lurraldeagatik aukeratu dituzte.
4. **Banakako azterketa eta konparatua:** aurreko faseetako informazioa erabili da lurralde-txostenak, txosten konparatua eta aldaketara bideratutako politika soziosanitarioak garatzeko azken gomendioak egiteko.

Eraitza ikuspegi bateratu bat da, ezagutza teknikoa eta zainketen eta laguntzen koordinazioan egunero lan egiten dutenen benetako esperientzia uztartzen dituen, eta oinarri sendo gisa balio duena aldaketara bideratutako etorkizuneko politiken ereduak integratuko, gizatiarrago eta jasangarriago izateko.



8. irudia. Azterketa konparatua egiteko metodologia

6.2. Politika soziosanitarioen azterketa konparatua

Azterketa honek eskualdeko hiru txostenen emaitzak eta erdiegituratutako elkarrizketa kualitatiboen emaitzak —kudeatzaileei eta adituei— biltzen ditu, Euroeskualdeko lau lurraldeetan aldaketara bideratutako politika soziosanitarioen egungo egoerari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzeko.

6.2.1. Egoera komuna eta oinarrizko tentsioak

Lau lurraldeek helburu bera dute: **gizarte- eta osasun-sistemak koordinatzea**, zainketen eta laguntzen jarraitutasuna, ibilbideen arintasuna eta baliabideen erabilera eraginkorra bermatzeko. Helburu hori gizartearen **zahartzeak, gaixotasun kronikoek, laguntza informalaaren ahultzeak eta etxean bakarrik bizi diren pertsona** kopuruaren hazkundeak baldintzatutako testuinguru komun batean kokatzen da.

Lurralde bakar batek ere ez du erabaki “hirugarren sistema” bateratu bat sortzea. Horren ordez, **sistemen arteko lankidetzak-estrategiak erabiltzen dira**, eta, kasu batzuetan, integrazio funtzionala esparru zehatzetan. Hala ere, koordinazio horrek **egiturazko tentsio** komunei egin behar die aurre:

- **Sistemen arteko asimetria:** osasun-esparrua hobeto egituratuta dago, eta finantzaketa eta aitorpen instituzional handiagoak ditu gizarte- eta mediku-gizarte esparruekin alderatuta; azken horiek antolaketa zatikatuagoa dute, koordainketak dituzte eta aitorpen profesional txikiagoa dute. Arakala horrek desberdintasunak eragiten ditu kultura profesionalean, estandarretan, finantzaketan eta erantzun-denboretan.
- **Konplexutasun instituzionala:** eskumen-sakabanaketak eta eragileen aniztasunak gobernantza zailtzen dute. Akitania Berrian eta Okzitania, gailuen ugaritzeak eta profesionalen eskasiak (“mediku lanpostu hutsak”) areagotu egiten dute zatiketa.

Oztopo horiek gorabehera, lurraldeek aurrera egin dute koordinatzeko moduetan, eta, ikuspegi desberdinekin, benetako beharrei logika integralago batetik erantzun nahi diete.

6.2.2. Espazioaren antolaketa lurraldearen arabera

Euskadi

Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuan (2022) formalizatutako **governantza finkatua du**, maila handiaren, ertainaren eta txikiaren arteko harremanak egituratzen dituen, sistemen arteko ikuspegi parekidearekin. 2021-2024 aldirako Estrategia Soziosanitarioarekin eta Finantzaketako Esparru- Akordio batekin osatzen da. Akordio horrek konpentsazio-logikaren ordez, Osasun Sailak gizarte-titulartasuneko baliabideetan lankidetzak egonkorragoa izatea ezartzen du.

Gaur **egungo erronka** nagusia esparru horiek egunero-ko praktikara eramatea da, batez ere asistentzia-jarduera gauzatzen den maila txikian. Egoitzaren arloan, **eskumen-arlo eskasak** – oinarrizko zainketak eta laguntzak ala osasun-arlokoak – eta lurraldeko barne-desberdintasunak daude. Informazioari dagokionez, InterRAI-CArekin izandako esperientziak huts egin ondoren —agerian utzi zituen, besteak beste, zereginak bikoiztea eta onarpen eskasa—, **sail arteko kontsulta soziosanitarioarako** bideari ekin zaio, erregistroak bikoiztu gabe funtsezko informazio partekatu ahal izateko. Nabarmentzekoak da egoitzak orain errazago sar daitezkeela Osakidetzaren historia klinikoan.

Nafarroa

Garapen-fasean dago, Zuzendaritza Batzorde batekin eta maila handian lan egiten duten talde teknikoekin. Hedapen esanguratsuena maila ertainetan eta txikietan gertatzen da Gizarteko eta Osasuneko Arreta Integratuaren Planari (PAISS) esker, lehen mailako arreta soziosanitarioan laguntzeko eskualdeko talde eragileak bultzatzen baititu. Talde horiek oinarrizko gizarte-lana, osasun-langileak eta komunitateko erizainak barne hartzen dituzte, eta tokiko koordinazio-dinamika eraginkorra dute.

PAISSeko zerbitzuen **finantzaketa** gizarte-sistemaren mende dago, eta horrek esparruen arteko asimetria eragiten du. Finantzaketa bateratua edo “kutxa bakarra” izatea lortu nahi da, egonkortasun eta erantzukidetasun handiagoa bermatzeko. Informazioari dagokionez, historia kliniko bakarrean jasota dago Andia Soziosanitario moduluak, eta bertan jasotzen dira arreta integraleko plana eta kasu-kudeatzailearen figura. Gaur egun ez dago eskuragarri gizarte zerbitzuentzat, eta irekitzea aztertzen ari dira. Egoitza-esparruan, oraindik ere irizpideak bateratzeko eta osasun-profila duten langileak kontratatuzko, nahiz eta Osasun Sailaren inplikazioa indartzeko borondate politikoa nabaritzen den.

Akitania Berria eta Okzitania (Frantzia)

Frantziako ereduak **gobernantza zatikatua** du, bi ardatz nagusiren inguruan egituratuta: Eskualdeko Osasun-Agentziak (ARS), osasun-esparruko ardura-dunak direnak, eta Saitetako Kontseiluak, gizarte-esparrua eta mediku-gizarte esparrua kudeatzen dituztenak. MAIA, PAERPA, PTA edo DAC gisako programak aldi berean egoteak koordinazio-estrategia bateratu eta egonkor bat antolatzea zailtzen du.

Egoitza-esparruan (EHPAD), finantzaketa hirukoitze-ko sistemak— osasun-zainketak, ARS/Osasun Aseguruak ordaintzen ditu, mendekotasuna duten pertsonen laguntza APA/Departamentuak, eta egonaldia erabiltzaileak ordainduko du — egoitzak medikalizatzea indartzen du. Sistema hori Euskadiko eta Nafarroako gizarte-ikuspegiaren oso bestelakoa da.

Koordinazio-tresnen artean, Koordinazioari Laguntzeko Gailuak (DAC) nabarmentzen dira, kasu konplexuetarako erreferentzia-puntu bakar gisa jarduten dutenak, profesionalen zein erabiltzaileei euskarria eskainiz. Beste plataforma digital batzuk ere badaude, hala nola Paaco, Akitania Berrian, eta SPICO, Okzitanian. Hala ere, oso gutxi onartu dira, erregistroak bikoiztu direlako eta beste tresna batzuekin bateragarriak ez direlako. **Maila txikian**, ikuspegi hierarkikoak malgutasun eraginkorra mugatzen du. Hala ere, pandemian tokiko malgutasun handiagoa ikusi zen, eta horrek erantzuteko gaitasuna hobetu zuen eta hurbileko lanaren potentziala nabarmendu zuen.

6.2.3. Tresnak mailaren arabera

Koordinazio soziosanitarioa hiru mailatan hedatzen da —handia, ertaina eta txikia—, eta horiek arau-esparru argiak, kudeaketa-egitura eraginkorrak eta zuzeneko arretari egokitutako tresnak behar dituzte. Aztertutako lurraldeek aurrerapenak erakusten dituzte arlo horietako bakoitzean, nahiz eta garapen-maila desberdina izan.

Maila handia. Gobernantza

Arau-esparruek eta erakunde-egiturek lurralde bakoitzeko esparru soziosanitarioaren formalizazio- eta egonkortasun-maila zehazten dute.

- **Euskadik** arau-esparru finkatua du, Gobernantza Soziosanitarioaren Dekretuaren (2022), 2021-2024 Estrategiaren eta Finantzaketa Akordioaren arloan ezarrita. Moltzo horrek esparru soziosanitarioaren instituzionaltasuna indartzen du; eta bere ikuspegi parekidea eta eskala anitzekoa da.

- **Nafarroak** gobernantza-egiturak indartu ditu, nahiz eta oraindik ere beharrezkoa izan Plan Soziosanitarioa berritzea eta funtzioak zein jarduteko arauak argitzea.
- **Frantziak** estatu- eta eskualde-esparrua uztartzen ditu eta hainbat zerbitzu edo programa erabiltzen ditu, batzuetan gainjarriak. EHPADen osasun-finantzaketa bermatuta dago egiturari dagokionez, eta Haute Autorité de Santé (HAS) agentziak ebaluatzaile gisa jarduten du mediku-gizarte esparruan.

Maila ertaina. Koordinazioaren kudeaketa

Lurraldeek tresnak zabaltzen dituzte sektoreen eta eragileen arteko lankidetzak errazteko:

- **Topaguneak eta kultura partekatua:** aldezkatu bilerak, prestakuntza bateratua, sare profesionalak eta diziplinariarteko lankidetzak eta elkarrekiko aintzatespena indartzen dituzten taldeak, benetako ‘denbora soziosanitarioa’ sortuz.
- **Lotura-figurak:** lan soziosanitarioa (Nafarroa), erreferente soziosanitarioak (EAE) eta profil sanitarioa duten gizarte-egituretako koordinatzaileak (Frantzia/PAERPA), sistemen arteko zubi eraginkor gisa jarduten dutenak.
- **Formalizazioa:** protokoloak, akordioak eta antolamendu-egiturak garatzea, funtzioak argitzeko eta irizpideak bateratzeko.
- **Informazioaren elkarrengarritasuna** erronka nagusietako bat da: bikoizketak saihestea, hasieratik profesionalekin batera diseinatzea, eta trazabilitatea bermatuta duten funtsezko datu partekatuak lehenestea.

Maila txikia. Arreta

Maila honetan, koordinazioa eguneroko praktikan zehazten da, adinekoei, haien ingurukoei eta laguntzen dieten profesionalen ematen zaien arretan eragiten duten tresnen eta jarduketaren bidez:

- **Banakako kasu eta planen kudeaketa:** funtsezko lau lurraldeetako tresna komunak, arreta pertsonalizatua eta etengabea bermatzeko.
- **Ohiko esku-hartze eremuak:**
 1. Etxean geratzea: etxeko laguntza, eguneko arreta, monitorizazioa eta teknologia, komunitatearen parte-hartzea.
 2. Zaintzaileentzako laguntza: prestakuntza, laguntza eta atsedeen-zerbitzuak.
 3. Susperraldia eta ospitaleko altak: bitarteko zaintzak eta laguntzak, eta ospitaletik etxerako aldaketa koordinatua.

Adibide aipagarri gisa, Nafarroan, PAISek oinarritzko arreta soziosanitarioa egituratzen du eskualdeko talde eragileen (EOZ) bidez, lankidetzaz eraginkorreko dinamika baten bitartez **Frantzian** garrantzi handiagoa ematen zaio CLIC eta DAC gailuen bidez informazioa eta orientazioa izateari.

6.2.4. Aukerak: komunitate-esparrua txertatzea

COVID-19ak agerian utzi zuen **komunitate-esparruak indarra** zuela gizarte- eta osasun-sistemen ezinbesteko osagarri gisa. Tokiko erantzuna emateko gaitasunak – auzo-sareen, boluntariotza-ekimenen eta elkarleen bidez – erakutsi zuen komunitateak parte har dezakeela hauskortasun- edo mendekotasun-egoeretan dauden adinekoak detektatzeko, laguntzeko eta babesteko orduan.

“Komunitateko” kontzeptuak askotariko ekosistemak barne hartzen ditu: Hirugarren sektorea —desgaitasunaren eta osasun mentalaren arloko elkarre-mugimenduak presentzia handia du—, hurbileko udal-zerbitzuak, gizarte-zentroak, “errezeta sozialak” gisako programak edo auzo-ekimenak. Aniztasun hori indargunea da, baina koordinazio- eta jasangarritasun-erronkak ere baditu.

Adostasun argia dago goiz detektatzean, autonomiaren sustapenean eta intentsitate txikiko laguntzetan duen zereginari buruz. Hala ere, intentsitate handiko zainketak bere gain hartzeko duen gaitasuna mugatua da, eta “komunitarismoaren” mugei buruzko eztabaidak jarraitzen du, gero eta indibidualizatuagoa den testuinguru batean.

Hirugarren sektorea eragile legitimo eta beharrezkotzat jotzen da, nahiz eta sindikatuen abisuak dauden ezkutuko pribatizazio-arriskuari buruz. Horregatik, **lidergo publikoa funtsezkotzat jotzen da**: finantzaketa egonkorra bermatzea, batez ere, udal-eremuan, eta erabiltzaileen parte-hartze aktiboa bultzatzea zerbitzuen diseinuan, Frantziako zenbait eskualdetan egiten den moduan.

6.3. Berrikuntza aldaketara bideratutako politikan

Bultzada berritzailea desberdina da lurraldeen artean. Frantzian, tokiko jarduera berritzailek asko bultzatzen dira, batera finantzatutako oinarritik sortutako ekimenekin. Hala ere, horren eragina mugatu egiten da jar-

raitutasun eta hedapen faltagatik. Ikaskuntza nagusia hurbileko berrikuntza eta erakundeen babes egonkorra uztartzea da.

Gizarte-berrikuntza hainbat ekosistemetan gauzatzen da, hala nola Pasaia HerriLab, Etxean Bizi, PAISS, zaintza eskolak edo Vivir Mejor en Casa. Proiektu horiek gizarte-, osasun- eta komunitate-arloak lurraldeari egokitutako erantzunekin uztartzen dituzte. **Teknologiari dagokionez**, bi ildo nabarmentzen dira: informazioaren elkarrengarritasuna hobetzea (Paaco-Globule, Andia Soziosanitarioa, sail arteko kontsulta berriak); eta etxetik etxeko laguntza-teknologiak (etxelKT, Etxean Bai). Horiei esker etxean gelditzea eta autonomia indartzen dira.

Berrikuntza instituzionalak ere ikusten dira, hala nola Okzitaniako autonomia lurralde bilerak (RTA), eta hurbiltasun-egiturek egiturazko oztopoak gaindi ditzaketela erakusten dute. Azkenik, ikerketa eta ebaluazioa ezinbestekoak dira ebidentzia sortzeko, ikaskuntzak zabaltzeko, politikak bideratzeko eta jada probatu diren eta eragina izan duten esperientziak zabaltzeko.

Aurrerapenak egon badira ere, eredu integratu eta jasangarriak izatea lortzeko, **benetako aldaketa zailtzen duten oztopoak** daude oraindik. Erronka nagusietako bat da **maila handiak, ertainak eta txikiak bat egitea**, gobernantza eta estrategiak eguneroko praktika eraginkor bihurtzen direla bermatuz.

Era berean, beharrezkoa da **lurralde-desberdintasuna murriztea**, zaintza eta zerbitzuetarako bidezko aukerak bermatzeko, bizilekua edozein dela ere. Egoitza-esparruan, **osasun-arreta hobetu behar da —bereziki Euskadin eta Nafarroan—**, eta sistemen arteko eskumenak argitu behar dira, gainjartzeak edo erantzukizuna inorena ez izatea saihestuz.

Funtsezko beste erronka bat politika eta baliabide soziosanitarioetan **ebaluazio- eta kalitate-sistema sendoak ezartzea da**. Frantziako HAS esperientzia erreferentzia baliagarria izan daiteke beste lurralde batzuetan identifikatutako ebaluazio-defizita gainditzeko.

Gizarte-esparruaren eta zaintza eta laguntzen balihoa handitzea oraindik ere konpondu gabeko erronka bat da. Sektore horiek oso feminizatuta daude, lanbide-aitorpen txikiagoa dute eta lan-baldintza kaskarrak dituzte. Gainera, premiazkoa da **koordinazioa funtsezko beste eremu batzuetara zabaltzea**, hala nola etxebizitzara, hezkuntzara edo enplegura, premien ikuspegi zabalagoa izateko. Azkenik, gero eta handiagoa den eskaerari erantzuteko, ezinbestekoa da **finantzake-**

ta egokia eta kudeaketa-eredu efizienteak izatea, proiektu pilotuetatik harago jarraitutasuna bermatzeko eta berrikuntzaren egiturazko eragina bermatzeko.

6.4. Azken gogoetak eta gomendioak

Azterketa konparatuak berresten duenez, egitura aldetik desberdintasunak eduki arren, lau lurraldeek helburu bera dute: **gizarte- eta osasun-arreta al-diberekoa, koordinatua eta egonkorra bermatzea hauskortasun- eta mendekotasun-egoeran dau-den adinekoei**, etxean jarrai dezaten eta komunitateko laguntza izan dezaten.

Koordinazio soziosanitarioa egiturak, **profesionalak eta baliabideak bateratzeko espazio gisa sortu da**, eta komunitate-esparruak protagonismoa hartzen du. Hala ere, osasunaren eta gizartearen arteko kultura-, antolamendu- eta finantza-desberdintasunek oztopo izaten jarraitzen dute, baita ospearen, baliabideen eta eskubideen desberdintasun nabarmenak ere.

Koordinazio eraginkorrak eskatzen du tresnak hiru mailetan hedatzea:

- **Maila handia:** gobernantza estrategikoa eta arau-esparru argiak.
- **Maila ertaina:** kudeaketa partekatua, informazioaren elkarreragingarritasuna eta batera lan egiteko espazioak.
- **Maila txikia:** arreta pertsonalizatua, banakako planak eta zaintzaileentzako laguntza.

